

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### OGASUN ZUZENDARITZA

##### Dirubilketa Zerbitzua

#### Ondasun higiezinak enkantean ateratzeko probidentzia eta iragarkia

Javier López de Calle Ochoa de Eribe, Arabako Foru Aldundiaren Dirubilketa Zerbitzuaren burua.

Jakinarazten dut: Arabako Foru Ogasunaren aldeko zordunketak kitatzeko xedez, Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko dirubilketari loturik izapidetzen ari den 2004EXP48001203 zenbakiko premiamendu espediente betearazlearen esparruan, Ogasuneko zuzendariak ondasun higiezinak enkantean ateratzeko Erabakia eta Probidentzia eman zituen, eta enbargatutako ondasun higiezinak enkante publikoan besterentzeko baimena eman. Enkantea egiteko data 2024ko irailaren 10ean finkatu da, 13:30ean, Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketako lokaletan (Probintzia plaza 13, behea, Vitoria-Gasteiz). Enkantea izapidetzean eta gauzatzean, Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketarako Araudi Orokorra onesten duen Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren 176., 177. eta 178. artikuluetako xedapenak bete behar dira.

Hori guztia betez, honako iragarki hau argitaratu da, eta enkantean lizitatzaille gisa parte hartu nahi dutenei ondokoa jakinarazten zaie:

#### 1. Besterendu beharreko ondasun higiezinak honako hauek dira:

Bat zenbakiko sorta.

1. Hirikoa. Bost zenbakia. Beheko solairuko bosgarren merkataritza lokala. Argentina kaletik du sarbide zuzena eta independentea. Berrogeita hemeretzi metro eta lauogeita hamazazpi dezimetro karratuko azalera erabilgarria du. Muga hauek ditu Argentina kaleko fatxadari: aurrealdean, kale hori; atzealdean, Argentina kaleko hamar zenbakia duen etxe fisikoaren igo-gailua eta eskailera kaxa, eta aparkaleku eremu pribatua beheko aldean, eta etxadi patioa gorengo aldean; eskuinean, Argentina kaleko hamar zenbakia duen etxe fisikoaren ataria eta aipatutako eskailera kaxa eta igogailua; eta ezkerrean, hortik bereizitako lokala. Kuota: Ehuneko bi oso eta beste oso baten lauhun eta hogeita hamazortzi milaren.

Katastroko lurzati honi dagokio: 59-1161.76-1-1-13.

Jabearen eskubideak enbargatutako finkaren gainean: jabari osoaren ehuneko 100.

Gasteizko 1 zenbakiko Jabetza Erregistroan inskribatuta, 3271 liburukian, 84 liburuan, 01 Vitoria-Gasteizko udalerrian, 128 folioan; 4011 zenbakiko erregistro finka.

Finka horren gainean hipoteka bat dago inskribatuta Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Madriden alde, Jesús Rodilla Rodilla notarioaren aurrean Vitoria-Gasteizen 1996ko irailaren 20an egiletsitako eskrituraren arabera. Eskritura horren 7. inskripzioa eragin zuen 1996ko azaroaren 6an. Caixabanken 2023ko ekainaren 9ko idazkiaren arabera, egungo titularrak ez du hipoteka kontraturik indarrean; horregatik, kreditua ekonomikoki kitatuta dago, eta, ondorioz, ez dago Foru Aldundiak egindako eta espediente honetatik etorritako enbargo idatzoharren aurreko beste karga ekonomikorik.

Enkantean gutxieneko tasatzat erabiliko den balioespena: 48.100,00 euro.

Bi zenbakiko sorta.

2. Hirikoa. Sei zenbakia. Vitoria-Gasteizko eraikineko beheko solairuko seigarren merkataritzako lokala edo lonja, iparraldean Enrique Eguren kalera eta mendebaldean Argentina kalera ematen duena, lehenengoan hamaika eta bigarreanean hamar zenbakiekin seinalatua. Argentina kaletik du sarbide zuzena eta independentea. Laurogeita bost metro eta hirurogeita bost dezimetro karratuko azalera erabilgarria du. Mugak, Argentina kalera ematen duen fatxadari: aurrealdean, barruko lerroan, Argentina kaleko hamar zenbakiko etxe fisikoaren eskailera kaxa eta, kanpoko lerroan, aipatutako kalea; atzealdean, beheingo aldean, aparkaleku gune pribatua eta gorengo aldean etxadi patioa; eskuinean, Argentina kaleko zortzi zenbakiko etxea, zenbait jaberena dena; eta ezkerrean, Argentina kaleko hamar zenbakia duen etxe fisikoko ataria eta eskailera kaxa. Kuota: Ehuneko hiru oso eta beste oso baten lauhun eta berrogeita hamazortzi milaren.

Katastroko lurzati honi dagokio: 59-1161.76-1-1-14.

Jabearen eskubideak enbargatutako finkaren gainean: jabari osoaren ehuneko 100.

Vitoria-Gasteizko 1 zenbakiko Jabetza Erregistroan inskribatuta, 3364 liburukian, 91 liburuan, 01 Vitoria-Gasteizko udalerrian, 26 folioan; 4150 zenbakiko erregistro finka.

Finka horren gainean hipoteka bat dago inskribatuta Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Vitoriaren alde, Jesús Rodilla Rodilla notarioaren aurrean Gasteizen 1996ko irailaren 20an egiletsitako eskrituraren arabera. Eskritura horren 7. inskripzioa eragin zuen 1996ko irailaren 20an. Kutxabanken 2023ko apirilaren 5eko idazkiaren arabera, ez dago finka horren gaineko kargarik erakundean; horregatik, kreditua ekonomikoki kitatuta dago, eta, ondorioz, ez dago Foru Aldundiak egindako eta espediente honetatik etortitako enbargo idatzoharren aurreko beste karga ekonomikorik.

Enkantean gutxieneko tasatatzat erabiliko den balioespina: 67.800,00 euro.

2. Lizitatzailerik aski iritzi beharko diete espedientearen bildutako jabetza tituluei eta jabetza erregistratzaileak emandako jabari eta kargei buruzko ziurtagiriei. Hala, interesa duten guztiek horiek aztertu ahalko dituzte enkantearen aurreko egunera arte, derrigorrezko dirubilketan, eta ez dute beste agiri batzuk eskatzeko eskubiderik izango.

3. Besterentzekoak diren ondasunen gainean enbargatutako eskubidea arestian zehaztutakoa da eta enkante tasatik beheerako posturak edo eskaintzak ez dira onartuko. Gainera, ondoz ondoko eskaintzek 1.000,00 euroko tarteen arabera izan beharko dute.

4. Besterentzekoak diren ondasunei eragiten dieten aurreko eta lehentasunezko kargek, arestian aipatu direnek, iraun egingo dute, eta enkantean lortutako errematearen prezioa ez da kargak azkentzeko erabiliko.

5. Deskribatutako finkak banan-banan aterako dira enkantera, aipatutako hurrenkeran, eta adjudikatutako ondasunen zenbatekoarekin zordunari egozten zaizkion zorrak kitatzen diren unean amaituko da enkantea.

6. Enkante publikoan lizitatzailerik gisa parte hartu ahalko dute zuzenbidearen arabera jarduteko gaitasuna duten eta jardun hori berariaz eragozten duen legezko eragozpenik edo murrizketarik ez duten pertsona fisiko edo juridikoek, behar bezala identifikatuta.

7. Enkantean lizitatzailerik gisa parte hartu nahi dutenek nahitaezko berme gordailua eratu beharko dute mahaiaren aurrean, gutxienez, adierazitako enkante tasaren ehuneko 20koa, eta ohartaraziko da gordailu hori irmo sartuko dela Foru Ogasunean, adjudikaziodunek errematearen prezioa ordaintzen ez badute, adjudikazioaren eraginkortasuna galarazteak gordailu horren zenbatekoan eragiten dituen kalte handiagoei lotutako erantzukizunari kalterik egin gabe.

8. Ondasunak adjudikatu aurreko edozein unetan etengo da enkantea, baldin eta eskuratu nahi diren zorpekoak ordaintzen badira.

9. Lizitatzailerik gutun azal itxian bidali edo aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak, iragarki hau argitaratzen den egunetik enkantea hasi baino ordu bete lehenagora arte. Eskaintza horiek gehienekoak izango dira, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean erregistratutako dira, ordua adierazita; horrez gain, lizitatzeko gordailuaren zenbatekoa jasota daukan foru

aldundiaren alde egindako txeke adostuarekin batera aurkeztu beharko da. Lizitzailearen NANA eta, hala badagokio, haren ordezkariak egiaztatzen duen eskritura publikoa edo agiria ere aurkeztu beharko dira. Dokumentu horien ordez, kopia konpultsatuak edo erkatuak aurkeztu ahalko dira.

Gutun azal itxia aurkeztu duten lizitzaileak ordezkariak ditu Mahaiak, eta eskaintza handiagoak egin ditzake haien izenean eskaintzan ezarritako gehieneko muga gainditu gabe; dena den, lizitzaileek ere parte hartu ahalko dute lizitazioan, gutun azalean ageri den eskaintza baino handiagoa eginda.

Gutun azal itxian aurkeztu den eskaintzarik handiena ez badator bat tarteren baten zenbatekoarekin, aurreko tartearen zenbatekoaren arabera egin dela ulertuko da.

Gutun azal itxian aurkeztutako eskaintza bat baino gehiago badatoz bat eskaintzarik onenarekin, lehenengo erregistratutakoari emango zaio lehentasuna.

Gutun azal itxian eskaintza bat baino gehiago aurkezten badira, guztietan bigarren handienetik aurrerako eskaintzak onartuko dira, eta beste eskaintzarik ez badago, bigarrenetik gorako tartean egin den eskaintzarik handiena izango da adjudikazioduna.

10. Erremategileek adjudikazio ekitaldian bertan edo hurrengo bost egunen barruan ordaindu beharko dute eraturako gordailuaren eta adjudikazioaren prezioaren arteko aldea.

11. Enkantea lehen lizitazioan adjudikatu gabe geratzen bada, Enkante Mahaiak, komenigarritasunari buruz eztabaidatu ondoren, honako aukera hauetako bat erabaki ahalko du:

a) Ekitaldi berean adjudikatu gabeko ondasuna eskaintzeko bigarren lizitazioa egitea. Erabakia berehala iragarriko da, eta tasa berria berdintzen duten proposamenak onartuko dira. Tasa hori lehen lizitazioaren enkante tasaren ehuneko 75ekoa izango da. Horretarako, ordu erdiko epea irekiko da lizitatu nahi dutenek besterentzekoa den ondasunaren enkante tasa berriaren ehuneko 20ko gordailua era dezaten; aurretik egindako gordailuek xede horretarako balioko dutelarik. Bigarren lizitazioa lehenengoaren formalitate berekin egingo da. Adjudikatu gabe geratzen diren ondasunak Arabako Lurralde Historikoko Dirubilletako Araudi Orokorren 180. artikulua xedatzen duen zuzeneko adjudikazioaren izapidearen arabera adjudikatuko dira.

b) Ondasunak zuzenean adjudikatzeko izapideari ekitea, 180. artikulua ezarritako prozedurari jarraituz.

12. Eskualdatzeari loturiko gastu eta zerga guztiak, eskualdatzearen gaineko notariotza gastuak barne, eta lehentasunezkoak ez diren kargen kitapenari loturikoak adjudikaziodunaren konturakoak izango dira. Jabeen erkidegoarekin izan daitezkeen zorren egoerari dagokionez, direla etxebizitzarenak, direla lokalarenak, adjudikaziodunak berariaz salbuesten du Arabako Foru Aldundia, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1996 Legearen babesean (apirilaren 6ko 8/1999 Legeak aldatu zuen lege hori), jabeen erkidegoaren zorren egoerari buruzko ziurtagiria aurkezteko betebeharretik, eta adjudikaziodunaren konturakoak izango dira ordaintzeke dauden gastuak.

13. Arabako Foru Aldundiak besterendu gabeko ondasunen adjudikazioa eskatzeko eskubidea izango du, Dirubilletako Araudiaren 188. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren arabera.

Oharra: hartzekodun hipotekario eta pignorazioak, kanpotarrak edo ezezagunak, halakorik balego, jakituntzat joko dira ondorio guztietarako iragarki hau dela bide, eta edukiarekin ados ez badaude, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko dute organo beraren aurrean, edo, bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen aurrean, hilabeteko epean, agiri hau argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 4a

*Dirubilketa Zerbitzuaren burua*

**JAVIER LÓPEZ DE CALLE OCHOA DE ERIBE**